

EUSKARAREN EGUNAREN INGURUKO EKITALDIAK

Euskararen Nazioarteko Eguna 1949an aldarrikatu zuen Eusko Ikaskuntzak. Urtetik urtera egitasmo berriak jartzen dituzte abian euskararen inguruan lanean diharduten eragileek, baita Osakidetzan bertan ere. Hona, horietako batzuk:

• ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEAN

Abenduaren 3an.

«I. Euskal Kafe Mundiala».

Kanpo-kontsultetako egoitzan: 08:30etik 09:30era.

Txagorritxuko egoitzan: 11:00etatik 12:00etara.

Santiagoko egoitzan: 13:00etatik 14:00etara.

• BARRUALDE-GALDAKAO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUAN

Abenduaren 3an, 08:30etik 09:15era.

"Euskararen eguna 2014".

Galdakao-Usansolo Ospitaleko areto nagusian.

Ekitaldian, Bizkaiko egungo bertsolari txapelkun Arkaitz Estiballesek kantatuko du, eta ESI-ko arduradun eta profesional batzuen hitzak entzungo, proiektatuko den bideo batean.

• DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEAN

Abenduaren 1ean, 13:00etan.

Mahai-ingurua: "Elkarri entzunez".

Partaideak: Osakidetza, Kontseilua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala eta OEE.

Abenduaren 3an, 13:00etan.

Donostia Unibertsitate Ospitaleko alta-txostenen liburuaren aurkezpena.

• ERAKUNDE ZENTRALEAN

Abenduaren 3an, 11:00etatik 13:00etara.

«II. Kafe Mundiala».

Zuzendaritza Nagusian, Euskara Plana Garatzeko Batzordeak antolatuta.

Helburu nagusiak: langileok euskararen erabilera sustatzeko guneak zabaltzea, elkar ezagutzea eta ordu biz euskara gozatzea eta konpartitzea.

OSASUN-ELKARTEEN LEHENENGO JARDUNALDIAK DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEAN

Azaroaren 7an, osasunarekin harremana duten Gipuzkoako sei elkartek beren jardunaren berri eman zuten. Bertan, ADEMGI, AECC, AFAGI, AGIFES, ALCER eta BEGISARE elkarteek hartu zuten parte, eta, hurrengo hilabeteetan, aukera bera izango dute pazienteekin eta horien familiakoekin lan egiten duten beste 60 bat elkartek ere. Izan ere, gizarte-arloa ere oso kontuan hartu nahi du ospitaleak.



ARNASGUNEEN GARRANTZIA NABARMENDU DU EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOAK

Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 aldirako duen egitasmo orokorra da Euskararen Agenda Estrategikoa. Dokumentu horrek gidatuko du datozen urteetan haren hizkuntza-politika. Agendak 13 lan-ildo, 34 ekimen eta 168 ekintza zehaztu ditu, eta, lehenetsuneko lan-ildotzat jo du arnasmuneen gainean egin beharrekoa.

Kontua ez da berria; izan ere, Eusko Jaurlaritza, X. Legealdirako hizkuntza-politikako lan-ildoak finkatzerakoan, Euskararen Aholku Batzordeak eginiko bi lan- eta hausnarketa-prozesutan oinarritu da: «Euskara 21 – Itun berri baterantz» eta «Euskara Sustatzeko Ekintza Plana».

Horien arteko lehenak ezartzen du Euskararen Agenda Estrategikoaren marko nagusia, eta bertan adierazten denez, lehenetsuneko trataera eman behar zaie euskarazko arnasmuneei, bai funtzionalei eta bai geografikoei: «Hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusia den esparruak behar ditu. Arnasmune horietan, eta ez beste inon, bilatu beharko du biziberritu nahi den hizkuntzak helduleku nahikorik, bai belaunaldiz belaunaldiko transmisioari, bai hizkuntzaren funtzio komunikatiboari, bai hizkuntzaren balio erreferentzialari dagokienez. Arnasmune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro». Ikusi agenda:

[webgunearen esteka](#)

«Medikuok bermatuko dugu pazienteen oinarrizko eskubidea; beraz, bidezkoa eta beharrezkoa da proposamenak geuk sortzea»

iban basabe inza

Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Barne Medikuntzako medikua


Egoerari aurrea hartu, eta horri irtenbidea eman nahi izan dio Iban Basabe Inza Donostia Unibertsitate Ospitaleko Barne Medikuntzako medikuak (Legazpi, Gipuzkoa, 1975). Espero izatekoa denez etorkizun laburrean pazienteek alta-txostenak euskaraz eskatzea, *Alta-txostenak euskaraz idazteko gidaliburua* koordinatu du. Ospitaleko mediku-talde zabala izan du aldamenean, eta denen artean, zerbitzu guztietarako alta-txostenen ereduak bildu dituzte. Abenduaren 3an aurkeztuko du, eta hura idazteko egin duen bidez hitz egin du.

Koordinazio-lanak egin dituzu alta-txostenak euskaraz idazteko gidaliburuan; zerk bultzatuta egin zenu-ten?

Alta-txostenak pazienteari begirako txostenak dira, kanpora begira egiten ditugunak. Pazientei buruz egunero idazten dugu, baina ez diegu jakinarazten; hori gure sistemaren barruan geratzen da. Alta-txostenekin ematen diegu informazioa pazienteei, ospitaleko egonaldia amaitu ondotik. Etorkizun hurbilean, pazienteek alta-txostenak euskaraz eskatuko dizkigutela ikusten genuen, eta egun horretarako lanketan hasi ginen. Hartara, eskaerak etortzen direnerako, jarraitibideak izango ditu medikuak esku artean. Zerbitzu bakoitzeko alta-txostenen ereduak jarri ditugu, euskaraz idatzi nahi dituztenean oinarri izateko.

Pluralean hitz egiten duzu, proiektua talde-lana izan den seinale. Nork osatu duzue taldea?

Guztira, 30-40 osagile aritu gara lanean, eta denok ezagutzen dugu elkar, alde edo moldez. Bakoitzak bere zerbitzuko alta-txostena landu du.



Donostiako Unibertsitate Ospitalean badago euskara-batzordea. Izan al duzue haien laguntzarik?

Donostia Ospitaleko Iñaki Villoslada eta Erakunde Zentraleko Mikel Maioz euskara-teknikariek irakurri eta zuzendu dituzte euskara aldetik. Euskara Batzordeko lehendakari eta unibertsitateko irakasle Felix Zubia doktoreak ere zuzendu ditu, eta azkenik, Jabier Agi-

re mediku eta itzultzailearen orrazketak eta oharrek berebiziko garrantzia izan dute; haren ekarpena –medikuen elkargoari esker– oso garrantzitsutzat jotzen dugu egitasmoan ibili garen guztiok.

Zein zailtasun izan dituzue?

Batzuk bai, kontuan hartzen badugu unibertsitate-ikasketen zati bat gaztelaniaz ematen dela. Alegia, lehenengo hiruzpalau urtetik aurrera, gaztelaniaz ikasten da medikuntza, eta terminologia, beraz, nahiko herdoilduta izaten dugu medikuok. Gainera, orain aldatzen ari den arren, erietxea nahiko inguru erdalduna da.

Hala ere, medikuntzako euskarazko terminologia sortua dago neurri batean. Egin al duzue ekarpenik?

Lehendik sortutako hainbat esapide eztabaidatu ditugu, eta egokiena iruditzen zitzaiguna hobetsi alta txostenetarako. Irizpide orokorrak ematen ditugu, eta kontziente gara hemendik gutxira berriz ere aldatuko direla. Izan ere, landu duguna osasungintzako zati



txiki bat baino ez da. Gauza ez da mailla teorikoan sortzea, egunerokoan erabili eta mamitzea baizik, erabilerak sortuko duelako ohitura eta, azkenean, esamoldea.

Poztekoa da, hala ere, medikuegandik sortutako proiektua izatea.

Garrantzitsua da, bai. Medikuek bermatuko dugu pazienteen oinarritzko eskubidea; beraz, bidezkoa eta beharrezkoa da proposamenak geuk sortzea. Bestalde, une oro pazienteekin euskaraz aritzen garenok badakigu

zein esapidek funtzionatzen duten, eta zeinek ez; hori baliagarria izaten da liburuak idazteko garaian.

Elkarlanak, beraz, berebiziko garrantzia izan du.

Handia, bai; denon artean lan egiteko aukera eman digu, eta, aurrerago zerbait egin nahiko balitz, eginda daude oinarritzko harremanak.

Osakidetzak barruko baliabideez gain, besteren bat erabili al duzue?

Gehien erabili ditugunen artean daude Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren

hiztegia eta, noski, Euskalterm eta Elhuyar; GNS-10 eta GRD-21 Osasun Saileko eta Osakidetzak barruko baliabideen artean daude, baina merezi du aipatzea; eta hor daude, era berean, EHUK sorturiko Erizaintzako Hiztegia eta OEEren datu-basea ere. Urrea balio du Iñaki Ugarteburu zenak sortu zuen Medikuntzako Terminoen Adibidete-giak, eta Hiztegi Batuari orpo orpo jarraitu diogu, izan ere ia azken orduan aldatu behar izan baitugu sifilis hitzaren idaztankera, esate baterako. Badi-ra, halaber, Giza Anatomiako Poltsiko Atlas eta beste batzuk ere. Ez da gutxi jadanik euskaraz dagoena, eta gehiago egotea espero dugu aurrerantzean.

Zein zubi-hizkuntza erabili dituzue?

Medikuntzan ingelesa da hizkuntza nagusia; beraz, gaur egungo terminoak ingelesetik hartu ditugu. Garai batean, ordea, frantsesa zen medikuntzako hizkuntza, eta horri ere erreparatu diogu.

Ba al duzue asmorik antzeko beste proiekturik egiteko?

Oraingo, ez. Arreta euskaraz emateaz gain, txostenak ere euskaraz eman genduzakeelako hasi ginen honetan, paziente euskaldunek ere euskarazko arreta bermatuta izan zezaten. Beste hutsuneren bat edo ikusten dugunean, egingo dugu zerbait, baina oraingo ez daukagu beste ideiarik buruan.

Abenduan aurkeztuko duzu liburua. Gogoia izango duzu, ezta?

Urduri eta pozik nago aldi berean. Liburua gainera oraindik ez dut esku artean! Duela hiru urte izan genuen ideia, eta orduan hasi ginen lankideekin harremanetan jartzen. Liburua, hala ere, urtebetean idatzi dugu, gutxi gorabehera, eta bai, gogoz nago buruan ibili dugun guztia inprimatuta ikusteko. Liburu hau oso garrantzitsua den arren, erabilerak emango dio indarra, eguneroko lanean erabiltzeak. Horretarako urrats dezente falta zaizkigun arren, garrantzitsuenak bi lirareke: profesionalok trebatzen jarraitzea, batetik, eta erabiltzaileek alta-txostenak eskatzea, bestetik.

gramatika

MEDIKAMENTUEN IZENAK LARRIZ ALA XEHEZ?:

Izen **generikoak**, printzipio aktiboen izenak, letra **xehez**, idatzen dira, eta izen arrunten erara deklinatzen: paracetamola, metamizola, ibuprofenoa, omeprazola, ziprofloxazinoa, azido azetil-salizilikoa...

Izen **komertzialak**, berriz, letra **larriz**: Aspirina, Tobradex, Sendamin, Augmentine...

MEDIKAMENTUAK HARTZEKO MAIZTASUNA ADIERAZTEKO ERAK:

Ibuprofenoa, 600 mg, 8 orduz behin.

Augmentine, 1 g, 8 ordutik behin.

Diklofenako kolirioa, tanta bat, 6 orduan behin.

Atenolola, 25 mg, 12 ordutik 12 ordura.

Badira era gehiago ere, baina bada bat, ahozkoan batez ere, inongo tradiziorik ez izan arren, arrunt zabaldua dagoena:

«Eztarriko mina arintzeko, paracetamola hartu, 500/650mg, 6-8 orduro».

«Lau orduro hartzeko agindu dit medikuak»...

Lau orduro? Lau, orduro? Lau pastilla orduro? «Lau orduz behin hartzeko?»

Ageri denez, gaizki-ulertuak gerta daitezke, eta arazoak badu garrantzia, are gehiago osasuna tartean dela.

Esan gabe doa forma guztiz zuzenak direla **orduero***, **hilabetero**, **hamabostero**...; ez, ordea, **hamabost egunero**, **sei orduero**, **hogeita hamar minutuero**...

Horretaz gehixeago irakurri edo ariketak egin nahi izanez gero, jo **hona**:

* Euskara batuan **orduero** da; ez **ordu**ro.

HONEZKERO ≠ DAGOENKO:

Honezkero formak ustea adierazten du, suposizioa; esaten dugunaz ez gaude ziur.

«**Honezkero sendatu da Joxe**»: Joxe sendatu dela uste dugu.

Dagoeneko aditzondoak, berriz, zerbait egiaztatzen du; ziurra dela adierazten du.

«**Dagoeneko sendatu da Joxe!**»: badakigu Joxe sendatu dela, geure begiz ikusi dugulako edo. Dena dela, ñabardura txiki bat du **dagoenekok**: ezustekoari edo ezohikoari zor zaion aditzondoa da, ondorio da. Ezusterik ez balitz, «Sendatu da Joxe» esango genuke, besterik gabe. Aldea argi egonik, zer dela-eta nahasi ohi dira horren desberdinak diren bi aditzondo horiek? Argi dago: gaztelaniazko «ya» zorionekoa tartean delako: «Joxe ya se habrá curado» eta «¡Joxe ya se ha curado!», hurrenez hurren.

Erne, beraz, eta gogorik baduzu, osatu esaldi hauek HONEZKERO edo DAGOENKO erabiliz:

- 1) _____ eginda! Ez nuen uste horren langilea zinenik.
- 2) Goizeko zortziak dira, _____ zabalik egongo da ambulatorioa.
- 3) Ez kezkatu, _____ hartuko zituen agindutako pastillak.
- 4) Dieta egiten aspaldi hasita dago, eta _____ argalduko zen.
- 5) Arratsaldeko laurak dira Londresen, eta _____ ilundu du. (Alaba han dago, eta oraintxe esan dio)
- 6) _____ iritsi da kontsultategira, oraintxe bertan jaso dut haren mezua ordenagailuan.
- 7) _____ operatuko zuten.
- 8) Aspaldi irten da zerbitziburua, eta _____ bileran izango da.

ERANTZUNAK:

(1) dagoeneko; (2) honezkero; (3) honezkero; (4) honezkero; (5) dagoeneko; (6) dagoeneko; (7) honezkero; (8) honezkero.

Argibide horiek zabaldu nahi izanez gero, **hona** jo dezakezu.

agenda

29. DOCTOR JOSE BEGIRISTAIN SARIA, MEDIKUNTZAKO IKERKETA-LANETARAKO

Lanak euskaraz idatziak izan behar dute, jatorrizkoak eta argitaragabeak, eta 2015eko apirilaren 30a baino lehenago helarazi behar dira Gipuzkoako Sendagileen Elkargora. Sariaren oinarriak elkargoaren webgunean ikus ditzakezue.

Lanak aurkezteko azken eguna: 2015eko apirilaren 30a.

[webgunearen esteka](#)

EUSKADIKO ERIZAINZAKO LAGUNTAILEEN IV. JARDUNALDIAK

2014ko abenduaren 12an, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean, Barakaldon.

[webgunearen esteka](#)

49. DURANGOKO AZOKA

2014ko abenduaren 5etik 8ra.

[webgunearen esteka](#)

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBETARAKO 2014KO BIGARREN DEIALDIA

Ahozko probak abenduaren 11n eta 12an izango dira.

Probetara deitutakoen zerrenda egun batzuk lehenago argitaratuko da, bai eta bakoitzaren tokia, eguna eta ordua ere.

[webgunearen esteka](#)

unitate didaktikoa

Hona hemen
2. hizkuntza
eskakizuneko ahozko
azterketaren iazko
eredu bat

